



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY
2024/04/19



LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P31113200B
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus
NIF: P3115200B

KULTURA / CULTURA

Espedientea 108633E

SANFERMINAK 2024

PORTADA LEHIAKETA, HAURREI ZUZENDUA

Lesakako Udalak lehiaketa deitzen du, 2024ko Sanferminetako programaren gibleko azala aukeratzeko.

ARAUTEGIA

Azalak: kartulina edo paper lodian aurkeztu behar dira, norberak nahi duen teknika erabiliz.

Neurriak: 210 x 210 mm (+3mm-ko koxka).

Derrigorrez bertan agertu behar du: **LESAKA 2024ko SANFERMINAK**

Gaia: norberak nahi duena, zertarako den kontutan hartuz.

Lan hauek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute.

Partehartzaileak: Lesakan jaiok edo bertan erroldatutako haurrak, 6 urtetik 12 urte bitartekoak.

Aurkezpena: lanak sobre batean sartuta aurkeztuko dira udal bulegoetan. Sobre honek eta lanak berak izenburu bat izanen dute, sobrea adieraziko dena. Sobre horren barruan bertze sobre txiki bat itxita eta bertan aurkezlearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa idatziko dira. Partehartzaile bakoitzak nahi adina lan aurkezten ahal ditu.

Aurkezteko epea: maiatzaren 17ko 13:00ak arte.

Aurkezten diren lan guzietan **erakusketa** bat osatuko da.

Herri bozketak erabakiko du lehiaketa, eta haren erabakia apelaezina izanen da. Horretarako erakusketak irauten duen bitartean, bertan Lesakan jaiok edo bertan erroldatuak direnek bozketa egiteko aukera izanen dute.

Aurkezten diren lanak Sanferminetako programan argitaratu ahal izanen dira.

Udalaren esku geratuko da saritutako lana. Bertzeak itzuliko dira.

SARIAK

1.a.....**100 euroko bonoa** Lesakako dendetan eskolako materiala erosteko.

Sariduna programaren gibleko azalean argitaratuko da.



LESAKA

Egiaztapen-aseguru kodea: AECA AAMU LV2K DUAK 9X9M

Sanferminak 2024-Kartel Lehiaketa Haurrak - SEFYCU 55863

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedelectronica.lesaka.eus/> 1tik 1 orrialdea